

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua bezero mota guztientzako dago egina, norberaren etxebizitzan seguru egotea ezinbestekoa delako eta familia guztiak arriskutik kanpo egotea nahi dugulako. Oso ohikoa da bere etxean lapurtu duten norbait ezagutzea baina askoz okerragoa izan daiteke hau lortzeko eraso fisikoak egonez gero, hau da, balio ekonomiko eta pertsonala duten gauzez gain, pertsonak ere babesten ditugu gure produktuarekin.

Oso interesgarria izan daiteke familia eta gauza propioak zaindu nahi dituzten pertsonentzako eta erabiltzeko oso erraza izango da, ez delako beharrezkoa teknologiarri buruz asko jakitea hau arazorik gabe erabiltzeko. Ekonomikoki ere jende gehienak eros dezake ez delako garestia. Gure produktuaren prezioarengatik, balore handiagoa duten gauzak babes ditzakezu.

